



7. ATALA: NEKAZARIAK

KARTA DIDAKTIKOA

LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiara fasea	1. Jarduera	Zer dakigu nekazarien inguruan?	Nekazaritzaren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.	
	2. Jarduera	Bai, esan? Nekazariak	Nekazarien lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Urtaroak	Urtaro bakoitzak dituen ezaugarriak identifikatu.	Paperak Kartulinak Margoak Tenperak Guraizeak Kola Material berrerabilgarria
	4. Jarduera	Barazkiak	Urtaro bakoitzean hazi daitezkeen barazkiak identifikatzea.	I.eranskina: barazkien fitxak.
Ekoizpen fasea	5. Jarduera	Baratzera bisita	Baratze baten antolaketa eta duen lana ezagutzea aurrez aurre.	
	6. Jarduera	Gure baratzea	Ikasgelako baratzea sortu eta zaintzea.	Jogurt poteak Lurra Landare haziak Errotulagaiak

* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

MUINA

Helburuak

- Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako nekazaritza aitzakitzat hartuta, nekazarien lanbidea ezagutu, urtaro bakoitzeko landareak eta landare bakoitzak biziratuko behar dituen baldintzak identifikatu eta landareak landatuko ditugu.
- Espezifikoak
 - Urtaro bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea.
 - Landareek bizirauteko behar dituzten baldintzak identifikatzea.
 - Egoera desberdinen aurrean sortzen diren emozioak lantzea.
 - Landare bat landatzea.
 - Ardurak betetzea.
 - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.

Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea landareak landatu eta horiek zaintzea izango da.

Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeko proposamenak biltzen dira.

KARTA DIDAKTIKOA

Lehenengo fasea

1. jarduera → Zer dakigu nekazarien inguruan?

- Helburua: Nekazaritzaren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Gelara sartuko gara kutxa batekin. Kutxaren barruan landare hazi batzuk sartuko ditugu. Asanbladan eserita, kutxako objektuen inguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer da? Zer egin daiteke honekin? Nork erabiltzen du? Ezagutzen duzue objektua erabiltzen duen norbait?...

Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Askotan ez baitugu pentsatu ere egiten jaten dugun horrek atzetik ze lan dagoen, nola zaindu behar den, ze baldintzatan egon behar den hazteko... Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.

2. jarduera → “Bai, esan? Nekazariak”

- Helburua: Nekazarien lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideopodkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideopodkasteen jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu

Irakaslearentzako oharra:

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:
 - **Makilaren garrantzia.** Makilak erabilera desberdinak izan ditzazke, baina baserrian animaliak goberntzako eta mendian ibiltzeko erabiltzen da gehienbat.
 - **Larre aldaketa.** Udan, animaliak larrean egoten dira belarra jaten. Horiek larrez aldatzea komeni da, janaria izan dezaten eta belarrari hazteko denbora emateko. Horrez gain, animaliak batzuetan nahiago izaten dute larre bat bestea baino horregatik ere aldatzen dira larrez.
 - **Belar metak.** Larretan ikusten diren plastikozko bola handiak belar metak izaten dira. Bola horien barruan belarra gordetzen da. Udaberrian belarra hazten joaten da eta uda heltzen denean, belar hori moztu eta lehortzen uzten da. Lehortzen denean plastikoan biltzen da. Belar meta horiek normalean negurako izaten dira, baina batzuetan lehenago erabili behar izaten dira larretan jatekoa falta bazaie.
 - **Baratzeko landareak.** Baratzean zer sartu eguraldiak eta garaiak esaten du. Lurrari begiratu egin behar zaio, ea bustia dagon, lehortuta... Urtaroak eta giroak du eragina.

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

- **3. jarduera → Urtaroak**

- Helburua: Urtaro bakoitzak dituen ezaugarriak identifikatu.
- Jarduera honetan talde bakoitzak urtaro bat aukeratu beharko du eta urtaro horri lotutako marrazki, eskulan, bertso, abesti, antzerki... bat egin beharko du. Talde bakoitzak egiten duen lan horretan aukeratutako urtaroaren ezaugarriak landu beharko dituzte. Horretarako sorkuntza egin aurretik, aukeratutako urtaroak dituen ezaugarriak identifikatu beharko dituzte. Ondoren egindakoa ikaskideei aurkeztu beharko diete eta ikaskideek ze urtaro landu duten asmatu beharko dute.

Irakaslearentzako oharra

- Jarduera honetan modu autonomoan arituko diren arren, urtaro bakoitzaren ezaugarriak identifikatzerako orduan, ze ezaugarri mota kontuan hartu behar duten azalduko diegu. Hona hemen kontuan hartu beharreko ezaugarriak: Tenperatura, eguraldia, iluntasun edo argitasun orduak, zuhaitz eta landareek izaten duten kolorea...

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

4. jarduera → Haizia landarea

- Helburua: Urtaro bakoitzean hazi daitezkeen barazkiak identifikatzea.
- Jarduera honetan urtaro bakoitzean hazi daitezkeen landareak identifikatzeko bikoteak egiteko jolasa erabiliko dugu. Urtaro ezberdinetako barazkien fitxak izango ditugu buruz behera, fitxa bakoitzean ze barazki den eta ze urtarotakoa den adieraziko da. Dinamikaren helburua bi fitxa berdin aurkitzea izango da. Behin fitxa berdinak aurkitutakoan, aurreko jarduerarekin lotura eginez, barazkiak hazteko behar dituen baldintzak bergogoraziko ditugu.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko dituzu jarduera hau egiteko beharrezko barazkien fitxak. Berde koloreko fitxak udaberriko barazkiak izango dira, urdin kolorekoak udakoak, laranja kolorekoak udazkenekoak eta zuri kolorekoak negukoak.

KARTA DIDAKTIKOA

Ekoizpen fasea

5. jarduera → Baratzera bisita

- Helburua: Baratze baten antolaketa eta duen lana ezagutzea aurrez aurre.
- Jarduera honetan aukera egongo balitz, baratze bat bisitatzea proposatzen da: ikastetxeko baratzea, ikasleren baten baratzea, herriko baratzereen bat...

Irakaslearentzako oharra

- Bisita hau, aurrez prestatu beharko da, hau da, nekazariarekin aurrez hitz egin beharko da ikasleei transmititu nahi zaien informazioa zein den zehazteko. Horrez gain, ikasgelan bertan ere aurrez galdera batzuk prestatzea interesgarria izango litzateke nekazariarekin hitz egiteko.

6. jarduera → Gure baratzea

- Helburua: Ikasgelako baratzea sortu eta zaintzea.
- Jarduera honetan ikasgelako baratzea sortuko dugu. Hirugarren eta laugarren jardueran ateratako ondorioak oinarritzat hartuz, ikasleek landare hazi batzuk landatu eta zaindu beharko dituzte. Horretarako jogurt poteak, lurra eta landare haziak beharko dituzte. Landare haziak landatu aurretik jogur poteak apaindu daitezke.



Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena


- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, 6.jarduera egiteko irakasleak abesti baten letra banatuko dizkiete ikasleei. Kantu horretako letra desordenatuta egongo da eta ikasleek taldeka abestiko hitzak ordenatu beharko dituzte abestira errealia lortzeko. Ziklo altuagoetan berriz, sortutako abestia ikasgelara mugatu beharrean, guraso edo eskolako gainontzeko ikasle zein irakasleentzako kontzertu bat antolatzea bideratu daiteke saioa. Kontzertuan sortutako abestia abesteaz gain, ikasleen gustuko abestiak bersionatu daitezke.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

I. Bazkarien fitxak





© EITB MEDIA

